



Eusko Jaurlaritzaren
Informatika Elkarte

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco

Erabiltzailearen eskuliburua

1.1 bertsioa

2026ko Urtarrilaren 15a

Euskadiko atzeritarrentzako lan-baimenak

Dokumentu honen jabea EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SA da, eta bertako edukia KONFIDENTZIALA da. EJIE idatzizko baimenik eman ezean, dokumentu hau ezin da kopiatu –ez osorik, ez zatika–, ez beste inori erakutsi, ez beste ezertarako erabili: soilik erabil daiteke dokumentu hau sortuta bete nahi ziren helburuetarako. Kontratu baten ondorioz emanez gero, kontratuan espresuki baimenduta dagoen horretarako erabili beharko da, eta ez beste ezertarako. EJIE ez du erantzukizunik izango dokumentua editatzean akatsik edo hutsunerik eraginez gero.



Dokumentu hau sortzeko erabilitako txantiloia honako lizentzi apean lizentziatu da:

[Aribide](#) bg [EJIE](#) is licensed under a [Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 Unported License](#).

Bertsioa	Data	Aldaketen laburpena	Egilea:	Nork onartua:
1.0	2025/11/18	Lehenengo bertsioa		
1.1	2026/01/15	Ordainketa-pasabiderako esteka erlaitz berri batean		

Edukia

1	Sarrera.....	4
1.1	Sistemaren helburuak.....	4
2	Autolikidazioak.....	5
2.1	Tasaren hautaketa.....	5
2.2	Tasaren jaulkipena	6
2.3	Tasaren ordainketa.....	7
3	Arazoak konpontzea.....	8
4	Ohiko galderak	9

1 Sarrera

1.1 Sistemaren helburuak

Euskadiko atzeritarrentzako lan-baimenen sistemaren helburua Euskadiko atzeritarrentzako lan-baimenei lotutako tasa jaulkitzea eta ordaintzea ahalbidetzea da.

2 Autolikidazioak

Autolikidazioen pantailak lan-baimenei buruzko tasa jaulkitzeko eta ordaintzeko aukera ematen du.

2.1 Tasaren hautaketa

AUTOLIKIDAZIOAK

1. Tasaren hautaketa 2. Tasaren jaulkipena 3. Tasaren ordaintzea

Tasaren hautaketa

Identifikazio-datuak

IFZ/AIZ * 10000012A Izena edo sozietatearen izena * MARIA JESUS Lehen abizena * MUNOZ Bigarren abizena * MUNOZ

* Lehen abizena nahitaezkoa da pertsona fisikoentzat

Langunea

Lurralde historikoa * Araba/Álava

Tasa

Tasaren deskribapena	Zenbatekoa
☐ Hasierako lan-baimena, ikasketak, ikasleen mugikortasuna, boluntarioritza-zerbitzuak edo prestakuntza-jarduerak direla-eta iraupen luzeoko egonaldi-baimena duten titularentzat	122,30 €
☐ Bizilekua izateko eta norberaren kontura lan egiteko hasierako baimenatarako lan-baimena	203,84 €
☐ Lan-baimen berritua Jatorriko Kontratazioaren Kudeaketa Kolektiboaren esparruan	16,40 €
☒ Norberaren konturako mugaz gaindiko langileentzako hasierako lan-baimena	203,84 €
☐ Besteren konturako mugaz gaindiko langileentzako hasierako lan-baimena - LOSaren halako bi edo gehiagoko ordainsaria	407,71 €
☐ Besteren konturako mugaz gaindiko langileentzako hasierako lan-baimena - LOSaren halako bi gutxiagoko ordainsaria	203,84 €
☐ Bizilekua izateko eta besteren kontura lan egiteko hasierako baimenatarako lan-baimena - LOSaren halako bi edo gehiagoko ordainsaria	407,71 €
☐ Bizilekua izateko eta besteren kontura lan egiteko hasierako baimenatarako lan-baimena - LOSaren halako bi gutxiagoko ordainsaria	203,84 €
☐ Mugaz gaindiko langileentzako baimena luzatzea, besteren kontura edo norberaren kontura lan egiteko.	81,54 €
☐ Sasoiako jardueratarako hasierako lan-baimena (banakakoak)	10,94 €
☐ Sasoiako jardueratarako lan-baimen berritua (banakakoak)	16,40 €
☐ Hasierako lan-baimena, jatorriko kontratazioaren kudeaketa kolektiboaren esparruan	10,94 €

ilara 1 hautatu da 12 erregistro erakusten

Hurrengoa

Autolikidazioa egiteko lehen urratsa aurkezlearen identifikazio-eremuak eta langunea betetzea da:

- IFZ/AIZ: NAN, AIZ edo IFK zuzena izan behar du.
- Izena edo sozietatearen izena: IFK bat sartu bada, aurkezlearen izen soziala jaso behar du. Bestela, aurkezlearen izena jaso behar du.
- Lehen abizena: NAN edo AIZ bat sartu bada nahitaezkoa da (hau da, aurkezlea pertsona fisikoa bada).
- Bigarren abizena: Ez da derrigorrezkoa.
- Langunea: Jarduera zein lurralde historikotatik garatuko den (Araba, Gipuzkoa edo Bizkaia).

Jarraian, tasa aukeratu behar da eta "Hurrengoa" botoia sakatu behar da. Ondoren, baliozkotze hauek egingo dira:

- IFZ/AIZ eremua hutsik ez egotea eta haren edukia baliozkoa izatea baliozkotzen da (IFK, NAN edo AIZ)
- Pertsona juridiko bat sartu bada (IFK "IFZ/AIZ" eremuan), "Izena edo sozietatearen izena" eremua hutsik ez egotea baliozkotzen da.
- Pertsona fisiko bat sartu bada (NAN edo AIZ "IFZ/AIZ" eremuan), "Izena edo sozietatearen izena" eta "Lehen abizena" eremuak hutsik ez egotea baliozkotzen da.
- Tasa hautatu dela baliozkotzen da.

Baliozkotzeak behar bezala amaitzen badira, formularioaren hurrengo urratsa erakutsiko da.

2.2 Tasaren jaulkipena

AUTOLIKIDAZIOAK

1. Tasaren hautaketa 2. Tasaren jaulkipena 3. Tasaren ordainketa

Tasaren jaulkipena

Hurrengoa botoia sakatzean, tasa jaulki egingo da. Une horretatik aurrera, ezin izango da uneko autolikidazioa aldatu.

Identifikazio-datuak

(FZ/AZ) 10000012A (Izena edo sozietaitearen izena) MARIA JESUS (Lehen abizena) MUÑOZ (Bigarren abizena) MUÑOZ

Langunea

(Lurralde historikoa) Araba/Álava

Tasa

Tasaren deskribapena	Zenbatekoa
Norberaren konturako mugaz gaindiko langileentzako hasierako lan-baimena	203,84 €

Aurrekoa Hurrengoa

Pantaila honetan, formularioaren lehen urratsean sartutako datuen laburpena agertuko da.

Pantaila horretatik ekintza hauek egin daitezke:

- Aurreko urratsera joan datuak aldatzeko.
- Autolikidazioa jaulkitzea, "hurrengoa" botoia sakatuz.

Pantaila honetan jakinarazten den bezala, tasa jaulki ondoren, ezingo dira formularioko datuak aldatu.

2.3 Tasaren ordainketa

AUTOLIKIDAZIOAK

1. Tasaren hasieraketa 2. Tasaren jaulkitzea 3. Tasaren ordainketa

Tasaren ordainketa

✓ Likidazioa behar bezala egin da. Ordainketa egotza elektronikoan eskuragari dago. Tasa orain ordaindu nahi baduzu, "Tasa ordaindu" botoia sakatzuz egin dezakezu.

Jaulkitako likidazioa identifikatzea

Erakunde jaulkitzailea - Azpizena	Erreferentzia	Identifikazioa	Zenbatekoa
04833001-565	0125990012242	021225	203,84 €

Eskaeraren datuak

IFZ/NZ	Toma edo sozializazioaren toma	Lehen abizena	Bigarren abizena
10000012A	MARIA JESUS	MUÑOZ	MUÑOZ

Kontzeptua

Tasaren deskribapena	Zenbatekoa
Norberaren konturako mugaz gaindiko langileentzako hasierako lan-baimena	203,84 €

Aurrekoa Tasa ordaindu

Tasa ordaintzeko pantailan honako informazio garrantzitsu hau agertzen da:

- Erakunde jaulkitzailea – Azpizena: ordainketa-gutunaren jaulkitzailearen identifikazioa da.
- Erreferentzia eta Identifikazioa: Ordainketa-gutuna identifikatzeko behar diren datuak.
- Zenbatekoa: Ordaindu behar den zenbatekoa.

Behin pantaila horretara iritsita, likidazioa jaulki egin da, eta pantaila horretatik ("Tasa ordaindu" botoia sakatuta) edo egoitza elektronikoaren "Ordainketak" ataletik ordain daiteke.

"Tasa ordaindu" botoia sakatzean, ordainketa-plataformara bideratuko zaitugu, autolikidazioaren ordainketa egin dezazun. Pantaila hori erlantz berri batean irekiko da.

3 Arazoak konpontzea

Aplikazioarekin arazo edo intzidentziaren bat izanez gero, mesedez, ipini harremanetan **Zuzenean zerbitzuarekin**, honako telefono hauetan.

- Euskal Autonomia Erkidegotik: **012 / 945 018000**
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: **945 018000**
- Atzeritik: **00 34 945 018000**

4 Ohiko galderak